**EBAZPENA, HEZKUNTZA SAILBURUORDEARENA, JARRAIBIDEAK EMATEKO UNIBERTSITATEAZ KANPOKO HEZKUNTZAN EUSKARA ETA LITERATURATIK SALBUESTEKO ESKABIDEAK EBAZTEKO 2019/2020 IKASTURTEAN.**

Azaroaren 24ko 10/1982 Legeak Euskararen Erabilera Normalizatzekoak Oinarrizkoak ezartzen duenez, Euskadiko herritar guztiek dute hizkuntza ofizialak ahoz eta idatziz ezagutu eta erabiltzeko eskubidea. 10/1982 lege horren 16. artikuluaren arabera, "derrigorrezkoa izango da ikasketok hartzeko guraso edo tutoreak edota, hala denean, ikasleak berak, aukeratu ez duen hizkuntza ofiziala irakastea" unibertsitate-ikasketak hasi arte egin behar diren ikasketetan, nahiz eta euskara ikastetik salbuetsi ahal izango diren ikasketak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo hasi dituztenak edo ohiko bizilekua EAEn ez dutela behar bezala egiaztatzen dutenak. (art. 21). Gero, derrigortasun hori jaso zuten uztailaren 11ko 138/1983 Dekretuak, Euskal Herriko irakaskuntza ez unibertsitarioan hizkuntza ofizialen erabilera araupetzen duenak, eta 1983ko abuztuaren 1eko Aginduak, dekretu hori garatzen duenak.

Hau dena kontuan hartuta, jarraibide hauek ematen dira 2019/2020 ikasturtean salbuesteko aurkeztutako eskaerak arauz lantzeko behin Dekretua, Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculuma ezartzen duena, indarrean sartu ostean.

Lehenengoa.- *Euskara eta literatura ikastetik eta ebaluatzetik salbuestea.*

2019/2020 ikasturtean, Euskara eta Literatura ebaluatzetik salbuestea onartuko zaie ikasleei, baldin eta salbuesteko eskatzen badute eta kasu hauetakoren batean badaude:

1.- Ikasleak beste hezkuntza-sistema batetik badatoz eta 2019/20 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko edozein ikastetxetan Batxilergoan hasten badira eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan Euskara eta Literatura irakasgaia ikasi ez badute. Halaber, Euskara eta Literatura DBHn eman duten eta, bi ikasturte oso edo gehiago beste hezkuntza sistema batean eman ondoren, berriro euskal hezkuntza-sisteman hasten diren ikasleek ere izango dute salbuespena eskatzeko aukera.

2.- Helduen Hezkuntzan ikasten hasten diren eta 1971 baino lehenago jaioak diren ikasleak.

Bigarrena.- *Derrigorrezko Hezkuntzan, ebaluatzetik bai, baina ikastetik ez salbuestea.*

2019/20 ikasturtean Hezkuntza Sistemara sartu zirenetik, gehienez bi ikasturtetan, Euskara eta Literatura ebaluatzetik bai, baina ez ikastetik, salbuetsita egongo dira, ondoko kasuetan agertzen diren ikasleak:

1.- Ikasleak 2019/20 ikasturtean euskal hezkuntza sisteman sartu berriak badira, eta Derrigorrezko Hezkuntzan (Lehen Hezkuntzako 1., 2., 3. eta 4. mailak izan ezik) salbuespena

**RESOLUCIÓN DE LA VICECONSEJERA DE EDUCACIÓN POR LA QUE SE DICTAN INSTRUCCIONES PARA LA RESOLUCIÓN DE LAS SOLICITUDES DE EXENCIÓN DE LENGUA VASCA Y LITERATURA EN LA EDUCACIÓN NO UNIVERSITARIA DURANTE EL CURSO 2019/2020**

La Ley 10/1982 de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del Euskara, establece el derecho de todos los ciudadanos de Euskadi a conocer y usar las lenguas oficiales, tanto oralmente como por escrito. Según el artículo 16 de la citada Ley 10/1982, "será obligatoria la enseñanza de la lengua oficial que no haya sido elegida por el padre o tutor, o, en su caso, el alumno" en las enseñanzas que se desarrollen hasta el inicio de los estudios universitarios, aunque podrán ser eximidos de la enseñanza del euskera quienes hayan iniciado sus estudios fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco o aquellos que justifiquen su residencia no habitual en la misma (art. 21). Esta obligación se trasladó posteriormente al Decreto 138/1983, de 11 de julio por el que se regula el uso de las lenguas oficiales en la enseñanza no universitaria en el País Vasco y a la Orden de 1 de agosto de 1983 que desarrollaba ese Decreto.

Teniendo en cuenta lo anterior, se dictan las siguientes instrucciones para el tratamiento reglamentario de las solicitudes de exención presentadas el curso 2019/20, una vez entrado en vigor el Decreto por el que se establece el currículo de Educación Básica.

Primera.- *Exención de la evaluación y de la enseñanza de Lengua vasca y literatura.*

Durante el curso 2019/20 se concederá la exención de la evaluación y de la enseñanza de Lengua vasca y literatura a aquellas alumnas y alumnos que soliciten la exención y que se encuentren en los siguientes casos:

1-. Alumnado que se incorpore al Bachillerato durante el curso 2019/20, en cualquier centro de la Comunidad Autónoma del País Vasco, procedente de otro sistema educativo y que no haya cursado Lengua vasca y literatura en la Educación Secundaria Obligatoria. También podrán solicitar la exención quienes, habiendo cursado Lengua vasca y Literatura en la ESO, reingresen tras haber permanecido dos cursos completos o más en otro sistema educativo.

2.- Alumnado que se incorpora a la Educación de Personas Adultas que haya nacido antes del año 1971.

Segunda.- *Exención de la evaluación pero no de la enseñanza en la Educación Obligatoria.*

Durante el curso 2019/20 estarán exentos de la evaluación, pero no de la enseñanza, hasta un máximo de dos cursos desde su incorporación al sistema educativo vasco, aquellas alumnas/os que se encuentren en los siguientes casos:

1.- Alumnado de nueva incorporación a la Educación Obligatoria (excepto los incorporados a los cursos 1º, 2º, 3º y 4º de EP) durante el curso 2019/20 y que solicita la exención. Como máximo, el curso 2021/2022 se incorporará al nivel

eskatzen badute. Luzeen jota, 2021/2022 ikasturtean talde arruntaren curriculum-mailan hasiko dira eta ebaluatzeko salbuespena amaituko da. 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ikasleek beste ikasturte bat izango dute talde arruntean sartzeko eta ebaluatzeko salbuespena amaitzeko.

2.- Ikasleek, 2018/19 ikasturtean Derrigorrezko Hezkuntzan hasi (Lehen Hezkuntzako 1., 2., eta 3. izan ezik), eta salbuespena iaz eskatu bazuten. Luzeen jota, 2020/21 ikasturtean hasiko dira talde arruntaren curriculum-mailan eta ebaluatzeko salbuespena amaituko da. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasi diren ikasleek beste ikasturte bat izango dute talde arruntean sartzeko eta ebaluatzetik salbuespena amaitzeko.

3. .- Ikasleak Oinarrizko Lanbide Heziketakoak badira eta Derrigorrezko Hezkuntzan Euskara eta Literatura irakasgaia ikasi ez badute.

4.- Helduen Hezkuntza ikasten hasten diren eta Derrigorrezko Hezkuntzan Euskara eta Literatura irakasgaia ikasi ez duten ikasleak

5. 1. atalean xedatutako baldintzen arabera, Euskara eta Literatura Lehen Hezkuntzan edo DBHn eman duten baina ebaluaturik izan ez diren eta, bi ikasturte oso edo gehiago beste hezkuntza sistema batean eman ondoren, berriro euskal hezkuntza-sisteman hasten diren ikasleek ere izango dute salbuespena eskatzeko aukera.

Hirugarrena.- *Ikastetik eta ebaluatzetik salbuesteko eskaera ukatzea.*

Ikasi eta ebaluatzetik salbuesteko eskaerei ezezkoa emango zaie kasu hauetan:

1.- Salbuespena Haur Hezkuntzarako eskatzen bada.

2.- Salbuespena Lehen Hezkuntzako lehenengo, bigarren, hirugarren edo laugarren mailetarako eskatzen bada.

3.- Ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxeko zuzendaritzaren iritziz eta Euskara eta Literatura Departamentuari aurretiko kontsulta egin ondoren, ikasleak lortu badu momentu horretan eskolatuta dagoen mailan Euskara eta Literatura ikasteko adinako hizkuntza-gaitasuna.

4.- Salbuesteko alegatutako arrazoiak norbanakoaren egokitzapen curricularrari badagozkio eta ez, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak izateagatik, salbuespenari berari.

5.- Ikasleak aurreko ikasturteetan Euskara eta Literatura ikasi badu eta irakasgai horretan ebaluatua izan bada.

6.- Salbuesteko eskabidea agiri bidez egiaztatzen ez bada. Kasu horretan, ikastetxeko zuzendaritzak egiaztatu egin beharko du datuak benetakoak diren ala ez, edo frogagiriak aurkeztu beharko ditu.

curricular del grupo ordinario y finalizará la exención de evaluación. El alumnado incorporado a partir del 1 de enero de 2020 dispondrá de un curso más para su incorporación al grupo ordinario y para la finalización de la exención de la evaluación.

2.- Alumnado que se incorporó a la Educación Obligatoria (excepto los incorporados al 1º, 2º y 3º de EP) durante el curso 2018/19 y que solicitó la exención el curso pasado. Como máximo, el curso 2020/21 se incorporará al nivel curricular del grupo ordinario y finalizará la exención de la evaluación. El alumnado incorporado a partir del 1 de enero de 2019 dispondrá de un curso más para su incorporación al grupo ordinario y para la finalización de la exención de la evaluación.

3. Alumnado de Formación Profesional Básica que no haya cursado Lengua vasca y Literatura en la Educación Obligatoria.

4. Alumnado que se incorpora a la Educación de Personas Adultas que no haya cursado Lengua vasca y literatura en la Educación Obligatoria.

5. También podrán solicitar la exención según las condiciones previstas en el apartado 1 quienes, habiendo cursado pero no habiendo sido evaluados en Lengua vasca y Literatura en la E. Primaria o en la ESO, reingresen tras haber permanecido dos cursos completos o más en otro sistema educativo.

Tercera.- *Denegación de la solicitud de exención de la evaluación y de la enseñanza.*

Se considerarán denegadas las solicitudes de exención de la evaluación y de la enseñanza en los siguientes casos:

1.- Cuando se solicite la exención para la Educación Infantil.

2.- Cuando se solicite la exención para el primero, segundo tercero o cuarto curso de Educación Primaria.

3.- Cuando la alumna o el alumno haya alcanzado, a juicio de la dirección del centro educativo en que está matriculado y previa consulta al Departamento de Lengua Vasca y Literatura, la capacidad lingüística suficiente para cursar Lengua Vasca y Literatura en el curso en el que actualmente está escolarizado.

4.- Cuando las razones alegadas no constituyan motivo de exención sino de adaptación curricular individual, al tratarse de alumnado con necesidades educativas especiales.

5.- Cuando la alumna o el alumno haya cursado y haya sido evaluado de Lengua vasca y literatura en los cursos anteriores.

6.- Cuando no se acredite documentalmente la solicitud de exención. En este caso la Dirección del Centro debe certificar sobre la veracidad de los datos presentar documentos probatorios.

7.- Ikasleak, euskal hezkuntza-sistemara sartu denetik kontatzen hasita, ebaluatzetik salbuesteko epea bukatu badu.

Laugarrena.- *Aparteko luzapena*

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan edo Batxilergoan matrikulatuta dauden ikasleentzat, Euskara eta Literatura Departamentuari aurretiko kontsulta egin eta salbuespena beharrezkoa dela informatu ondoren, ikastetxeetako zuzendaritzek ebaluatzetik salbuesten jarraitzeko aparteko luzapena eskatu ahal izango dute, gehienez ere bi ikasturte gehiago. Horretarako, kontuan hartuko da zein hezkuntza-mailatan sartu ziren ikasleak, ikasketen historiala eta ingurunearen ezaugarri soziolinguistikoak. Edozein kasutan ikastetik ez da salbuespenik egongo.

7.- Cuando haya finalizado el plazo de exención de la evaluación de la alumna o alumno desde su incorporación al sistema educativo vasco.

Cuarta.- *Prórroga excepcional.*

Las direcciones de los centros educativos podrán solicitar excepcionalmente la prórroga de la exención de evaluación, pero no de la enseñanza, hasta dos cursos más, como máximo, para el alumnado matriculado en la Educación Secundaria Obligatoria o en el Bachillerato, previa consulta al Departamento de Lengua Vasca y Literatura que informará de la necesidad de la misma, cuando las circunstancias del nivel educativo al que se ha incorporado en el sistema educativo vasco, su historial académico o las características socio-lingüísticas del entorno así lo aconsejen.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko irailaren 30ean – En Vitoria-Gasteiz a 30 de septiembre de 2019

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Maite Alonso Arana

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Hezkuntza Sailburuordea – La Viceconsejera de Educación